

Aurrezteko programa aurrendari bat jarri du abian berriki

**EROSKI-K FRANKIZIA ERAKO BESTE
SUPERMERKATU BAT INAUGURATU DU
GIPUZKOAN, BEASAINEN**

- Frankizia erako denda berriak elikagai zerbitzu osoa emango die kontsumitzaileei, fabrikatzaileen markekin eta marka propioarekin eta freskoetan lidergoa dutenekin
- Saltokian sei langile ariko dira
- Merkataritza arloko Frankizia Onenaren Saria jaso zuen EROSKI k 2017an

Beasain (Gipuzkoa), 2018ko azaroaren 29a.- [EROSKI](#)k frankizia erako beste supermerkatu bat ireki du Beasainen (Gipuzkoa), Nafarroako etorbideko 45.ean. EROSKI/City izenekoa da saltokia, eta "zurekin" eredu komertzialaren barrenean jardungo du, zeinaren ardatza baita tratu pertsonalizuagoa ematea, apustu handia egitea tokiko produktuen eta sasoiko elikagai freskoen alde, elikadura osasungarria sustatzea eta aurrezteko modu berriak eskaintzea eguneroko erosketetan. Supermerkatu hau inauguratuta, sei lanpostu sortu dira

Supermerkatuak 3.000 produktu baino gehiago eskainiko ditu, ekoizle liderren markakoak, marka propioak eta tokiko ekoizleak, eta 300 metro koadro ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala edukiko du; bereziki, sasoiak tokiko frutena eta barazkia, eta erreferentzia osasungarriek garrantzia hartuko dute, produktu ekologikoen sorta zabalagoa izango baita. Bezeroek arreta pertsonalizatua izango dute harategian. Saltokiak ogiak eta opilak izango ditu, labe propioan egin berriak, bezeroei freskotasunik handiena bermatzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Kluba da erakusgarri behinena. Markaren Bezero-Bazkideen harremanerako programa berria da, eta %15eko deskontuak eskaintzen ditu 2.500 produktutan baino gehiagotan, baita sustapenak, berriazko eskaintzak eta Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere. 240.600 kontsumitzaile baino gehiago dira kooperatibako Bezero bazkideak, eta EROSKI Cluben abantailak eskuratzen ari dira dagoeneko Gipuzkoan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Merkataritza Frankiziarik Onenaren Espainiako Saria

EROSKIk *Merkataritza arloko Frankiziarik Onenaren Espainiako saria* jaso du, Frankiziaren Nazioarteko 28. Erakusketan. Joan deneko lau urtean, bigarren aldia da EROSKIren markak sari hau irabazi duena. Sari horrek, aitortza egiteaz bat, balioan jartzen du negozio eredu honetan diharduten eragile nagusien lana.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)